

## 1.7. Hamaikagarren liburukiaren ezaugarriak

---

### 1.7.1. Liburukiaren edukia

Hamaikagarren liburuki honek 232 galderaren erantzunak eskaintzen ditu. Erantzun horiek lexikoari buruzko gaiak (80-85. gaiak) estaltzen dituzte:

80: ofizioak eta tresnak (58 galdera)

81: itsasontzia eta eskifaia (56 galdera)

82: itsas arrantza (35 galdera)

83: beste lanbide batzuk (17 galdera)

84: gizarte-bizitza (33 galdera)

85: pisuak, neurriak, dirua eta koloreak (33 galdera)

Liburukiaren bukaeran, indexak aurkitzen dira: bai mapen moldaketari dagokionena, bai erantzunei dagokiona.

### 1.7.2. Liburukiaren egitura

Mapei eta erantzunei dagokien partea galderen arabera egituratua da: galdera bakoitzari badagokio alde batetik **erantzutegi** bat ezkerreko orrialdean agertzen dena, eta, beste aldetik, haren parean, eskuinaldeko orrialdean, mapa bat, honen gainean galderaren **izenburuak** agertzen direla, eta behean maparen **legenda** eta **ohartegia**.

Galdera bakoitzari doazkion erantzunak, herrialdeka eta inkesta-lekuka zerrendatuak dira eta alfabeto fonetikoan emanak. Haien arabera egin dute argitalpenaren moldatzaileek interpretazio kartografiko bat, mapa batean proposatzen dutena. Inkesta-leku batean bildu den erantzuna zehazki jakiteko, erantzutegira jo behar da; beraz, ez mapara.

Irakurleak ikusten duen bezala, hemengo mapen itxura ez da Euskaltzaindiak lan horietan usaian egiten dituen bezalakoa. Izan ere, Nafarroa Garaiko mugak modu berezian agertzen dira haietan eta, halaber, herri izenak ere, gaztelaniaz eta euskaraz desberdinak direnean, euskara soilean agertzeko orde, deitura ofizialetako era elebidunean ematen dira. Hastapenetik proiektu honen babesleatarik izan den Nafarroako Gobernuko agintariek 2001ean hala biziki eskaturik egin dira gauzak horrela.

### 1.7.3. Galdera-izenburuak

Galdera bakoitzari dagokion gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko forma agertzen dira galdera-izenburu gisa.

Izenburu horren azpian, galderak *EHHA*ko galde-sortan daukan zenbakia agertzen da eta, galdera bera ondoko mintzaitetako hizkuntza-atlasetan ere egina izan delarik, atlas haietako galderen erreferentzia ere ematen da; adibidez, *ALEANR (Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja)*, *ALG (Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne)* edo *ALE (Atlas Linguarum Europae)*.

## 1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak

---

### 1.8.1. Erantzutegiaren egitura

Erantzunak inkesta-lekuen arabera zerrendatuak dira, eta inkesta-lekuak berak, herrialdeka. Beti modu berean.

Herrialdeen ordena, baita haien barneko inkesta-lekuena ere, mendebaldetik ekialdera doan segida bati jarraitzen zaizkio. Horrela, lehenik Bizkaiko herriak agertzen dira, eta haietan, lehenbizikorik, *Getxo*, *Leioa*, *Zollo...* Azkenik Zuberoako inkesta-lekuak aurkitzen dira ekialdean urrunenik daudenak agertzen direlarik bukaeran: *Ürrüstoi*, *Barkoxe*, *Eskiula*.